

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA MENDEKO DIREN SOZIETATEEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2010.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Irrati Telebista (EITB) Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren eta mendeko diren sozietateen fiskalizazio txostena mamitu du, 2010eko ekitaldiari buruzkoa. Txostena Osokoaren kideen gehiengoak onetsi du, nahiz kideetatik bik boto partikularra egin duten.

Fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu langileria eta ondasunen kontratazio, hornidura eta zerbitzuen alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean Epaitegiak uste du EITBk eta mendeko sozietateek zuzentasunez bete dutela ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, txostenean bertan zehaztu diren hainbat akats salbuetsita.

Bada, kontratazioaren atalean HKEEk adierazi du hainbat espediente, 0,4 milioi eurorenak, publikotasunik gabeko prozedura negoziatua baliatuta izapidetu direla eta 2,8 milioi euroren gastuak dagokion espedientea izapidetu gabe erregistratu direla; horiek, publizitadedun prozedura negoziatu bidez edo prozedura ireki bidez izapidetu behar ziratekeen; kopurua eta zenbatekoa txostenean bertan zehaztu da.

Langileriarri dagokionez, HKEEk azpimarratu du 2010ko ekitaldian 9 pertsonak izan dutela sarbidea zuzendaritza postu funtzionaletara, Erakundearen sorrera legeak aurreikusten duen “profesionaltasun” kontzeptua baliatuta; horietatik 4k ez zuten aurretik Erakundearekin inongo kontratu loturarik eta ez dira goi kargudun modura azaltzen, izan ere lan kontratu finkoekin kontratatu dira merezimendu eta gaitasun printzipioak bete gabe, ez baita deialdi publikorik bideratu, aipatutako legeak berak agintzen duen moduan.

Erakundearen eta mendeko sozietateen Urteko Kontu Bateratuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du; salbuespen da 2010eko abenduaren 31n ez erregistratu izana data horretan zorpetutako gizarte kuotak, 2,6 milioi eurorenak; izan ere, Gizarte

Segurantzaren Lan Ikuskaritzako Unitateak EI, SAn merkataritza kontratua zuten 87 langile autonomoren jardueraren gainean gauzatutako ikuskaritza lanaren ondorioz azaleratu da egoera hori eta azkenean, besteren konturako mendeko lan izaera aitortu zaio eta honenbestez, dagozkion kotizazioak atzeraeraginezko izaerarekin ordaintzera behartu du.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz.